JP/jp **18- R.091-MA/09**

**ERANSKINA - ANEXO**

**ORMAIZTEGIKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIAREN INGURUMEN ERAGINAREN EBALUAZIO BATERATURAKO ERREFERENTZIA DOKUMENTUA**

**1.- AURREKARIAK**

Euskadiko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeko 41. artikuluan ezarritakoaren arabera eta ingurumen eraginaren ebaluazio bateratuaren prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 182/2003 Dekretuko 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, hiri antolamenduko plan nagusiek eta lur ez urbanizagarriari dagozkion aldaketek ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratu prozesua izan behar dute, derrigorrez. Aipatutako Dekretuko 6. artikuluan ezarrita dagoenez, ingurumen-eraginaren ebaluazio bateraturako azterlana egiteko, prozedura hori izan behar duten planetako bat egin nahi dutenek dagokion ingurumen-organoarengana jotzen ahal dute, azterlanean agertu behar duen informazioaren zabaltasun eta zehaztasun mailen berri izateko.

Era berean, hiri antolamendurako plan nagusiak (HAPN) plan eta programa jakin batzuek ingurumenean daukaten eragina ebaluatzeko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen menpe daude. Lege horren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen iraunkortasuneko txostenaren zenbaterainokoa eta zehaztasun maila ingurumen-organoak zehaztu behar ditu, dagozkion administrazio publikoak eta hartzaileak identifikatu eta kontsultatu ondoren, erreferentzia-dokumentua sortuz. Horrez gain, dokumentu horretan ingurumen-irizpide estrategikoak eta kasu bakoitzean aplika daitezkeen ingurumen-helburuen eta iraunkortasun-printzipioen adierazleak jaso behar ditu.

2009ko otsailaren 25ean, Ingurumen Zuzendaritza Nagusi honek Ormaiztegiko Udalak bidalitako gutuna jaso zuen. Bertan, Udalak adierazi zion indarrean dauden plangintzarako Arau Subsidiarioak ordezkatuko dituzten Hiri Antolamendurako Plan Nagusia idazten hasi zela, eta EKOLUR enpresak egindako aurretiazko kontsultetarako dokumentuaren kopia bidali zion, ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuaren azterlanaren norainokoaren eta zehaztasun-mailaren berri izateko.

**DOCUMENTO DE REFERENCIA PARA LA EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE ORMAIZTEGI**

**1.- ANTECEDENTES**

De acuerdo con lo previsto en el artículo 41 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco, y según lo establecido en el artículo 3 del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, los planes generales de ordenación urbana, así como sus modificaciones, que afecten a suelo no urbanizable, deben someterse preceptivamente al correspondiente procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental. El artículo 6 del citado Decreto establece que, a efectos de la elaboración del estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental, quienes propongan formular alguno de los planes sometidos a este procedimiento podrán consultar al órgano ambiental correspondiente sobre la amplitud y grado de especificación de la información que ha de constar en el estudio.

Asimismo, los planes generales de ordenación urbana (PGOU) entran dentro del ámbito de aplicación de la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente, cuyo artículo 9 establece que el alcance, nivel de detalle y el grado de especificidad del informe de sostenibilidad ambiental se determinará por el órgano ambiental, tras identificar y consultar a las administraciones públicas afectadas y al público interesado, mediante la emisión de un documento de referencia que incluirá, además, los criterios ambientales estratégicos e indicadores de los objetivos ambientales y principios de sostenibilidad aplicables en cada caso.

El 25 de febrero de 2009 se recibe, en esta Dirección General de Medio Ambiente, un escrito remitido por el Ayuntamiento de Ormaiztegi, en el que informa que el ayuntamiento ha iniciado la redacción del Plan General de Ordenación Urbana que sustituirá a las vigentes Normas Subsidiarias de planeamiento y remite una copia de un documento para consultas previas elaborado por la empresa EKOLUR, a fin de conocer el alcance y el grado de especificación del estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental.

Kontsultarako bidalitako dokumentuak Planaren helburuak eta jarduerak gainetik deskribatzen ditu eta ingurunearen azterketa, aurreikus daitezkeen ingurumen-eraginak eta hierarkian gorago dauden plan eta programekin izan dezakeen elkarrekintza aztertzeko lehen urratsak egiten ditu.

Ormaiztegiko Udalak emandako informazioan oinarrituta, herriko plangintza nagusiaren berrikusketaren helburua da egungo ezaugarri sozioekonomiko eta fisikoei eta hierarkian gorago dauden planetan jasotako hirigintza-ebazpenei egokitzea. Horretarako, jarduera hauek egingo ditu:

- Lur Ez Urbanizagarria EAEko Lurralde Antolamenduko Arauek ezarritako zonifikazioari eta kategorizazioari egokitzea.
- Etxebizitza-multzo handia sortzea, gehienak babesekoak, egungo hirigunearen eta ekipamendu-eremuaren artean, hiri-bilbea egokitzeko.
- Irai Errota eremuan industrialde handia sortzea, herriaren ekialdean sakabanatutako ehun industrialak biltzeko.
- Egungo Gi-632 errepidearen zeharbide-izaera aldatzea, hirikoagoa bihurtuz eta bere bi aldeetan loturak erraztuz.
- Estanda ibaiko ertzak berreskuratzea, pixkanakako jardueraren bidez, eta oinezkoentzako pasealekua eta bidegorria sortzea.
- Bidegorrien bidez, industrialdeak eta egoitza-lekuak lotzea.
- Ekipamendu-eremuak handitzea, sektore berriaren bidez.

Ormaiztegiko udaleko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia behin betiko onartzeko funtsezko eskuduntza Gipuzkoako Foru Aldundiak dauka; hortaz, otsailaren 27ko 3/1998 Legeko 44. artikuluaren arabera eta Ingurumen Iraunkorreko Departamentuko organo eta funtzio egiturari buruzko maiatzaren 20ko 36/2008 Foru Dekretuko 11.2.1. c) artikuluarekin bat, Ingurumen Zuzendaritza Nagusi honi dagokio planen eta programen ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuan kontuan hartu beharreko alorrei buruzko ebazpenak hartzea.

El documento para consultas remitido describe someramente los objetivos y las actuaciones del Plan y realiza una primera aproximación al análisis del medio físico y a los impactos ambientales previsibles y la interacción con planes y programas jerárquicamente superiores.

En base a la información proporcionada por el Ayuntamiento de Ormaiztegi, el objetivo de la revisión del planeamiento general del municipio es adecuar el mismo a las características socioeconómicas y físicas actuales, así como a las determinaciones urbanísticas recogidas en los planes jerárquicamente superiores, lo que se traduce en las siguientes actuaciones:

- El Suelo No Urbanizable, se ajustará a la zonificación y categorización establecida por las Directrices de Ordenación Territorial de la CAPV.
- Crear un importante paquete de vivienda, mayoritariamente protegida, en la zona situada entre el actual centro urbano y el área de equipamientos, conformando la trama urbana.
- Crear un importante polígono industrial en la zona de Irai Errota, de manera que se compacten los tejidos industriales dispersos, situados en la zona oriental del municipio.
- Modificar el carácter de travesía de la actual carretera Gi-632, dándole un aspecto más urbano y favoreciendo las conexiones a ambos lados de la misma.
- Recuperar las márgenes y bordes del río Estanda, en una actuación suave, realizar un paseo peatonal y un bidegorri.
- Conectar, por medio de bidegorri, las zonas industriales con las residenciales.
- Ampliar las zonas de equipamiento, desde el nuevo sector.

La competencia sustantiva para la aprobación definitiva del Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Ormaiztegi corresponde a la Diputación Foral de Gipuzkoa, por lo que, en aplicación del artículo 44 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero y en consonancia con lo establecido en el artículo 11.2.1. c) del Decreto Foral 36/2008, de 20 de mayo, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Desarrollo Sostenible, corresponde a esta Dirección General de Medio Ambiente la emisión de las resoluciones relativas a los aspectos a considerar en la evaluación conjunta de impacto ambiental de planes y programas.

Eskaera jasota, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak Ormaiztegiko Udalari jakinarazi zion, 2009ko otsailaren 16an bidalirako gutunaren bidez, HAPNa ingurumen-eraginaren ebaluazio bateraturako prozeduraren menpe dagoela. Bestalde, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean izan dezaketen eragina ebaluatzeko apirilaren 28ko 9/2006 Legeko 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, zegozkien administrazioak eta hartzaileak kontsultatzeko eta identifikatzeko izapidea hasi zuen.

Txosten hau plan eta programa jakin batzuek ingurumenean izan dezaketen eragina ebaluatzeko apirilaren 28ko 9/2006 Legeko 9. artikuluan aipatutako erreferentzia-dokumentua da eta, horrez gain, ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuaren prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuko 6. artikuluan ezarritako kontsulta-izapideari erantzuten dio.

## 2.- EGINDAKO KONTSULTAK

Plan eta programa jakin batzuek ingurumenean izan dezaketen eragina ebaluatzeko apirilaren 28ko 9/2006 Legeko 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, administrazio eta erakunde hauek zerikusia daukatela jo da, eta beraz, hauek kontsultatu dira:

- GFAko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza
- GFAko Kultur Ondareko Zuzendaritza
- GFAko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza
- GFAko Mugikortasun eta Garraio Publikoko Zuzendaritza
- GFAko Bide Azpiegituretarako Departamentuko Plangintza eta Kudeaketako Zuzendaritza Nagusia
- GFAko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza
- GFAko Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia
- IHOBE
- Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondareko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritza
- Ur agentzia
- Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Partaidetzarako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendurako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre egiteko

Recibida la solicitud, la Dirección General de Medio Ambiente, comunica al Ayuntamiento de Ormaiztegi, mediante escrito remitido el 16 de febrero de 2009, que el PGOU está sometido al procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental e inicia el trámite de identificación y consulta a las administraciones afectadas y al público interesado previsto en el artículo 9 de la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre la evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente.

Este informe constituye el documento de referencia contemplado en el artículo 9 de la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente y da respuesta a su vez, al trámite de consulta previsto en el artículo 6 del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental.

## 2.- CONSULTAS REALIZADAS

En aplicación de lo previsto en el artículo 9 de la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre la evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente, se han identificado como afectadas y se han consultado las siguientes administraciones y entidades:

- Dirección de Montes y Medio Natural de la DFG
- Dirección de Patrimonio Cultural de la DFG
- Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural de la DFG
- Dirección de Movilidad y Transporte Público de la DFG
- Dirección General de Gestión y Planificación del Departamento de Infraestructuras Viarias de la DFG
- Dirección de Obras Hidráulicas de la DFG
- Dirección General de Ordenación del Territorio de la DFG
- IHOBE
- Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco
- Dirección de Calidad Ambiental del Gobierno Vasco
- Agencia Vasca del Agua
- Dirección de Biodiversidad y Participación del Gobierno Vasco
- Dirección de Planificación, Evaluación y Control Ambiental del Gobierno Vasco
- Dirección de Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco
- Dirección de Infraestructuras de Transporte del Gobierno Vasco
- Dirección de Atención de Emergencias del Gobierno Vasco

Zuzendaritza

- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza
- Eguzki talde ekologista
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa talde ekologista
- Aranzadi Zientzia Elkartea
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa
- Ezkio-Itsasoko udala
- Beasaingo udala
- Idiazabalgo udala
- Mutiloko udala
- Gabiriako udala
- Goieki S.A.
- Goimen
- ENBA (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)
- EHNE (Euskal Nekazarien Batasuna)
- Gipuzkoako Ur Kontsortzioa
- Sasieta Hondakin Mankomunitatea

Erantzunak bidaltzeko epearen amaieran, Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritzarena, Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre egiteko Zuzendaritzarena eta Kultur Ondarearen Zuzendaritzarena, IHOBE, SA Ingurumenaren Kudeaketarako Enpresa Publikoarena eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoarena jaso genituen; erantzun horien kopiak txosten honi erantsita daude.

**Osasun Sailak** adierazi du bat datozela HAPNan planteatutakoarekin.

**Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre egiteko Zuzendaritzak,** aldiz, Ormaiztegiko HAPN idaztean kontuan hartu beharreko uholde, seismo, sute et teknologia arriskuei buruzko informazioa bidali digu.

**Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzak** Kultur Ondareko Ondasunen Zerrendak bidali dizkigu; hau da, batetik, arkitektura-interesa daukatenak eta, bestetik, interes arkeologikoa daukatenak. Bestalde, beren kokapen-plana ere bidali digu.

**IHOBE** sozietateak jakinarazi digu lursail batzuk lurra kutsa dezaketen jarduera edo instalazioak dauzkaten edo izan dituzten lurren inbentarioari buruzko irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan daudela. Bestalde, adierazi du, oraindik argitaratu gabe dauden inbentarioa eguneratzeko ondorengo lanen arabera, erregistratutako lekuetan aldaketa batzuk antzeman dituztela, baita lurra kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten beste lursail

- Dirección de Infraestructuras de Trasporte del Gobierno Vasco
- Dirección de Transportes del gobierno Vasco
- Dirección Territorial de de Gipuzkoa del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco
- Grupo ecologista Eguzki
- Grupo ecologista Ekologistak Martxan Gipuzkoa
- Sociedad de Ciencias Aranzadi
- Confederación Hidrográfica del Cantábrico
- Ayuntamiento de Ezkio-Itsaso
- Ayuntamiento de Beasain
- Ayuntamiento de Idiazabal
- Ayuntamiento de Mutiloa
- Ayuntamiento de Gabiria
- Goieki S.A.
- Goimen
- ENBA (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)
- EHNE (Euskal Nekazarien Batasuna)
- Consorcio de Aguas de Gipuzkoa
- Mancomunidad de Residuos de Sasieta

Finalizado el plazo otorgado para la remisión de respuestas se han recibido las de la Dirección Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Sanidad, de las Direcciones de Atención de Emergencias y de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco, de la Sociedad Pública de Gestión Ambiental IHOBE, S.A. y de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico de las que se adjuntan copias al presente informe.

El **Departamento de Sanidad** señala que no han encontrado disconformidades con lo planteado con el PGOU.

**La Dirección de Atención de Emergencias del Gobierno Vasco** por su parte, remite información sobre los riesgos de inundabilidad, riesgos sísmicos, de incendios y tecnológicos a tener en cuenta en la redacción del PGOU de Ormaiztegi.

**La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco** remite la Relación de Bienes de Patrimonio Cultural en sendas listas, por un lado, las que tienen interés desde el punto de vista de la arquitectura y, por otro, de las zonas de interés arqueológico, así como un plano de su ubicación.

**IHOBE** informa de la existencia de parcelas incluidas en el Decreto 165/2008, de 30 de septiembre, de inventario de suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo. Asimismo, indica que de acuerdo a trabajos posteriores de actualización del inventario aún no publicados, se han detectado modificaciones en los emplazamientos registrados así como otros

batzuk ere, eta, beraz, inbentarioan sartuta daudela. Txostenarekin batera, 165/2008 Dekretuan eta *Inbentarioaren eguneratzearen zirrimarran* erregistratutako lursailen planoak daramatzan CD bat bidali digute.

emplazamientos que han soportado actividades potencialmente contaminantes, por lo que son objeto de inventario. Acompaña el informe un CD con los planos de los emplazamientos inventariados en el Decreto 165/2008 y en el *Borrador de actualización del Inventario.*

Azkenik **Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren** iritziz Ingurumen Iraunkortasuneko Txostenak ondoko edukiak izan beharko lituzke: aspektu hidrologiko eta hidrogeologikoak aintzat hartzen dituen ingurunearen deskribapena, ur-hornidurari buruzko atal bat, ur-arazketari buruzko beste bat, uholde lautadaren mugapen zehatzago bat, bertan lurzoru urbaniztagarri berririk izendatuko ez dela aurreikusiz.

Por último, la **Confederación Hidrográfica del Cantábrico** considera que el Informe de Sostenibilidad Ambiental debe incluir una descripción del medio con referencia a aspectos hidrológicos e hidrogeológicos, un apartado relativo al abastecimiento de agua, otro relativo a la depuración de aguas residuales y una más detallada identificación de las llanuras de inundación y la previsión explícita de que sobre ellas no se declarará nuevo suelo urbanizable.

Erreferentzia-dokumentu hau egin ondoren erantzunik jasoz gero, Ormaiztegiko udalari ahalik eta azkarren bidaliko diogu, Plan Nagusia idazteko eta IEEBaren Azterlana egiteko kontuan har dezan.

En caso de recibirse alguna respuesta posterior a la emisión de este documento de referencia, ésta será remitida al Ayuntamiento de Ormaiztegi en el plazo más breve posible, a fin de que sea tenida en cuenta en la redacción del Plan General y en la elaboración del Estudio de ECIA.

## 3.- INGURUMEN IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK

HAPN idaztean kontuan hartuko diren ingurumen-irizpideek bat egin beharko dute 2002-2020 Garapen Iraunkorraren Euskal Estrategiarekin, 2007-2010 Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programarekin eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearekin. HAPNak, berriz, Ormaiztegiko Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planean planteatutako ildo estrategikoak betetzearen alde egin beharko du; hala, Agendan zuzenean ala zeharka hirigintza-plangintzarekin zerikusirik daukaten ekintzei erantzun beharko die.

Era berean, HAPNko ebazpenak diseinatzeko, Garapen Iraunkorraren Euskal Estrategiak bermatutako antolamendu iraunkorrerako irizpideekin bat, zuzenketari baino, prebentzioari lotzeko, hainbat garapen-dokumentu[1] eta printzipio hauek kontuan hartu beharko dira; horrela, zuzenketa eta konpentsazio neurriak hartzeko beharra mugatuko da:

## 3.- CRITERIOS AMBIENTALES ESTRATÉGICOS

Los criterios ambientales que se consideren en la redacción del PGOU deberán ser compatibles con los establecidos en la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020, el Programa Marco Ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2007-2010 y la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo. A su vez, el PGOU deberá contribuir al cumplimiento de las líneas estratégicas planteadas en el Plan de Acción de Agenda Local 21 de Ormaiztegi, de modo que dé respuesta a las acciones contenidas en el mismo que tengan relación con el planeamiento urbanístico de manera directa o indirecta.

Igualmente, a la hora de diseñar las determinaciones del PGOU se tendrán presentes los siguientes principios, en consonancia con los criterios de una ordenación de carácter sostenible avalada en la Estrategia Vasca de Desarrollo Sostenible, y diversos documentos de desarrollo[2], de modo que se incida en el principio de prevención más que en el de corrección, permitiendo limitar la necesidad de establecer medidas correctoras y/ o compensatorias.

[1] Hiri-plangintzari aplikatzeko iraunkortasun-irizpideak, 2003 eta Hirigintza Plangintza Iraunkortasun Irizpideekin Idazteko Eskuliburua, 2005. EJko Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.
[2] Criterios de sostenibilidad aplicables al planeamiento urbano. 2003.. y Manual para la Redacción de Planeamiento Urbanístico con Criterios de Sostenibildad. 2005. Dept. de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del G.V

- Dentsitate erdi/altuko eta erabileren nahasketa eta konplexutasun oneko hirigune trinko eta anitzei lehentasuna ematea. Horretarako, dentsitate apal/oso apaleko egoitza eta industria garapen berriak ekidin beharko dira, baita etxebizitza isolatu edo atxikien tipologia ere, hiri-eredu sakabanatua, lausoa eta lur, energia eta material kontsumitzailea bultzatuko bailuke.

- Egungo hiri-ehunen funtzio-optimizazioa eta birmoldaketa sustatzea, birgaituz, berregituratuz edo berrituz, eta bazterreko eremuak berreskuratzea, lurrak eta baliabideak optimizatzeko eta herriaren memoria historikoa babesteko.

- Inguruan egungo hiri-sarean oinarritutako hirigune trinkoak sortzea, garraio publikoetan, oinez eta bizikletaz ibiliz mugikortasun iraunkorra errazteko eta azpiegitura (bideak) eta zerbitzu (hornidura, saneamendua, elektrizitatea, gasa, telefonia, hondakinen bilketa, etab.) berrien beharra murrizteko.

- Garapen berrien ingurumen-eragina minimizatzea, lekuak eta urbanizatu beharreko eremuen diseinuak leku hauetan ahalik eta eragin gutxien izateko moduan aukeratuz: arrisku naturalak dituzten lekuetan (uholdeak izan ditzaketen eremuetan eta malda handikoetan, …), arrisku teknologikoak dituztenetan (sute eta jario arriskuak dituzten jarduerak), interesdun natur habitatetan, paisaia-kalitatea daukatenetan. Hala, habitat naturalen aniztasun biologikoari eutsi beharko zaio, hiri-garapenetik babestuz edo/eta natur eremuak hiri-bilbean barneratuz.

- Bigarren egoitza hedakorreko eskaintza-sorrera eta, oro har, lur-kontsumoan oinarritutako ereduak minimizatzea. “Etxebizitza hutsen” okupazioa sustatzea.

- Eraikuntzak oro har (eraikinek, egiturek, urbanizazioak, etab.) eta bere funtzionamenduak baliabideen (uraren, energien eta materialen) eta sortutako hondakinen eta kutsatzaileen balantzean daukaten eragin kaltegarriak murriztea, zikloen itxierarantz bideratuz.

- Herria habitat gisa sustatzea, etxebizitza funtsezko eskubide moduan bermatuz, kokapen, kopuru, irismen, kalitate eta prezio baldintza egokiekin.

- Priorizar zonas urbanas compactas y variadas con una densidad media-alta y una buena mezcla y complejidad de usos, evitando los nuevos desarrollos residenciales e industriales de baja-muy baja densidad, y la tipología de vivienda aislada o adosada, las cuales inciden en potenciar un modelo urbano disperso, difuso y alto consumidor de suelo, energía y materiales.

- Fomentar la optimización funcional y reconversión de los tejidos urbanos existentes, mediante su rehabilitación, reestructuración o renovación, así como la recuperación de los espacios marginales, como estrategia para la optimización de suelo y recursos y la preservación de la memoria histórica de la ciudad.

- Establecer las zonas urbanas compactas en las cercanías y apoyadas en la actual trama urbana de forma que permita una movilidad sostenible por medio del transporte público, peatonal y ciclista, y se minimice la necesidad de nuevas infraestructuras (viario) y servicios (abastecimiento, saneamiento, electricidad, gas, telefonía, recogida de residuos, etc.).

- Minimizar la incidencia de los nuevos desarrollos en el medio ambiente, adoptando aquellas localizaciones y diseños de los sectores a urbanizar que interfieran lo menos posible, bien con lugares sometidos a riesgos naturales (áreas inundables y zonas con elevadas pendientes, …) o riesgos tecnológicos (actividades con riegos por incendios, fugas, etc.), bien con hábitats naturales de interés, o con zonas de calidad paisajística, de forma que se mantenga la diversidad biológica y de los hábitats naturales, preservándolos del desarrollo urbano y/o integrando los espacios naturales en la trama urbana.

- Minimizar la creación de oferta de segunda residencia extensiva y, en general, de modelos basados en el consumo del suelo. Promocionar la ocupación de la “vivienda vacía”.

- Reducir el impacto negativo en el balance de recursos (agua, energía y materiales), residuos y contaminantes provocados, tanto por la construcción en general (edificios, estructuras, urbanización, etc.), como por su funcionamiento, orientándose hacia al cierre de los ciclos.

- Potenciar el carácter básico del pueblo como hábitat, garantizando la vivienda como derecho fundamental, en condiciones adecuadas de

- Lur ez urbanizagarriaren antolamendu egokia sortzea, Lurralde Antolamendurako Arauek ezarritako antolamendu-kategorien bidez (eta dagokien jarduera bultzatu, onargarri eta debekatuen matrizea aplikatuz) eta Nekazaritza eta Basozaintzako LAParen bidez, landa-ingurunea babeste aldera. Horretarako, landa-ingurumenaren garapen ekonomikoaren, ekosisteman daukan eginkizunaren (lehengaiak hornitzea, ingurunea babestea, ...) eta ingurumen eta paisaia kalitaterako baldintza egokien arteko oreka bilatu beharko da.

- Aniztasun biologikoaren galera geldiaraztea, habitaten eta ekosistemen funtzionamendu iraunkorra berreskuratuz eta babestuz eta natur ingurumenaren nahikotasuna, koherentzia eta elkargarritasuna babestuz.

- Paisaia-faktorea udal-plangintzan barneratzea, paisaia babestea, kudeatzea eta antolatzea bultzatuz, Europako Paisaia Hitzarmenak ezarritakoaren arabera.

- Pertsonen mugikortasun-eskaera kudeatzea, garraioak oinezko, bizikletazko eta talde-garraiozko moduengana bideratuz. Motorizatu gabeko mugikortasuna eta garraio publikoak sustatzea.

- Giza habitataren kalitatea eta ingurumen osasuntsua izateko eskubidea kontuan hartzea etxebizitza-eremuen eta beren kalitatea baldintzatu dezaketen azpiegituren (industrialdeen, bide-sarearen, etab) kokapena diseinatzean.

**4.- PLANAREN EREMUAN DAUDEN INGURUMEN INTERES BEREZIKO BALIABIDE ETA EREMUAK ETA BABES HELBURUAK**

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honetan dagoen informazio bibliografiko eta kartografikoa kontsultatuz, Planaren aplikazio-eremuan (Ormaiztegiko udal-lurraldean) arriskuan dauden edo/eta balioa daukaten baliabide hauek identifikatu ditugu; beraz, arreta berezia jarri beharko zaie HAPN idaztean eta dagokion IEEBaren Azterlanean. Ingurumen interesa daukaten osagaien zerrendak orientatzeko soilik balio du; hortaz, Planari dagokion eremuaren ingurumen balorazioa, azterketa eta diagnostikoa egitean lortutako informazioarekin osatu beharko da; informazio horretan, erreferentzia-dokumentu honen 5.3 atalean zehaztutakoa egon beharko da, gutxienez.

localización, cantidad, accesibilidad, calidad y precio.

- Establecer una adecuada ordenación del suelo no urbanizable mediante las categorías de ordenación establecidas por las Directrices de Ordenación del Territorio (y la aplicación de la correspondiente matriz de actividades propiciadas, admisibles y prohibidas) y el PTS Agroforestal de forma que se preserve el medio rural, buscando un equilibrio entre su desarrollo económico, su papel en el ecosistema (abastecimiento de materias primas, conservación del medio, …) y las adecuadas condiciones de calidad ambiental y paisajística.

- Detener la pérdida de diversidad biológica mediante la protección y la restauración del funcionamiento sostenible de los hábitats y ecosistemas, protegiendo la suficiencia, coherencia y conectividad del medio natural.

- Integración del factor paisaje en el planeamiento municipal, impulsando su protección, gestión y ordenación, tal y como establece el Convenio Europeo del Paisaje.

- Gestionar la demanda de movilidad de las personas reconduciendo el reparto modal hacia el caminar, la bicicleta y el transporte colectivo. Se fomentará la movilidad no motorizada y los medios de transporte públicos.

- Considerar la calidad del hábitat humano y el derecho a un medio ambiente saludable a la hora de diseñar la ubicación, tanto de áreas residenciales como de infraestructuras que puedan condicionar dicha calidad (polígonos industriales, red viaria, etc.),

**4.- RECURSOS Y ESPACIOS DE ESPECIAL INTERÉS AMBIENTAL QUE SE ENCUENTRAN EN EL ÁMBITO DEL PLAN Y OBJETIVOS DE PROTECCIÓN**

Consultada la información bibliográfica y cartográfica existente en esta Dirección General de Medio Ambiente, se han identificado los siguientes recursos frágiles y/o valiosos en el ámbito de aplicación del Plan (término municipal de Ormaiztegi) a los que habrá que prestar especial atención en la redacción del PGOU y el Estudio de ECIA correspondiente. La relación de elementos de especial interés ambiental es orientativa y deberá ser completada con la información obtenida del análisis, diagnóstico y valoración ambiental del ámbito afectado por el Plan, que deberá tener el contenido mínimo descrito en el apartado 5.3. de este documento de referencia.

**a) Komunitate-interesa daukaten habitatak.** Ormaiztegiko udalean, komunitate-intereseko habitat mota hauek daude, gutxienez:

- 91E0 * *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* oihan alubialak (lehentasunezko habitata).
- 4030 Europako txilardi lehorrak.
- 6510 Altitude apaleko ebakitze gutxiko belardiak.
- 9120 Atlantikoko pagadi azidofiloak, *Ilex* eta, batzuetan, *Taxus* oihanpea daukatenak.

HAPNaren IEEBaren Azterlanean habitat horiek identifikatu eta kartografian mugarritu beharko dira. Udal-antolamenduan kontuan hartu beharko dira; hau da, HAPNan dauden jardueren bidez, habitat horien azalera mantentzeko edo handitzeko ahaleginak egin beharko dira, eta Lur Ez Urbanizagarriaren antolamendu-arauek habitat-orban adierazgarriei babes egokia eman beharko die, batez ere lehentasunezko habitatei.

**b) Baso autoktonoak.** Zuhaizti autoktono masak (harizti-oihan mistoa, pagadiak, haltzadiak). HAPNa egitean, hostotsu autoktono masak mugarritu beharko dira eta masa onenak lur ez urbanizagarriaren *"babes bereziko"* antolamendu-kategorian izendatzeko aukera aztertu beharko da (adb., pagadi azidofiloa udalaren hegoaldeko mugan, Aritzabal-Garakoa baserriaren inguruko hariztiak, etab.), Lurralde Antolamendurako Arauetan ezarritako irizpideari jarraiki. Bestalde, andeatutako baso-eremuak, sasi-eremuak eta lur marjinalak *"ingurumen-hobekuntza"* kategorian izendatzen ahalko dira, baso autoktono masak birsortzea egokituko baitzaie.

**c) Ferra-saguzarra** (*Rhinolophus ferrumequinum*). Ferra-saguzarra Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoko *Kaltebera* kategorian dago, eta Ormaiztegiko Udala kiroptero horren interes bereziko eremuan dago. IEEBaren Azterlanean, beraz, planteatutako jarduerek espezie horrengan izango duten eragina kontuan hartu beharko da.

**d) Jabari Hidrauliko Publikoa** eta bere zortasun-zona eta polizia-zona, Uraren Legearen testu bateginak eta bere garapen-araudiak arautuak. HAPNan, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzen Antolamenduari buruzko LAPean ezarritakoa kontuan hartu beharko da. Uraren kalitateari dagokionez, udaleko hondakin-urak egoki tratatu beharko dira; hala, hiri-garapen berriek JHPra isuritako karga kutsakorra areagotzea ekidin

**a) Hábitats de interés comunitario.** Dentro del municipio de Ormaiztegi se encuentran al menos los siguientes tipos de Hábitats de interés comunitario:

- 91E0 * Bosques aluviales de *Alnus glutinosa* y *Fraxinus excelsior* (hábitat prioritario).
- 4030 Brezales secos europeos.
- 6510 Prados pobres de siega de baja altitud.
- 9120 Hayedos acidófilos atlánticos con sotobosque de *Ilex* y a veces de *Taxus*.

El Estudio de ECIA del PGOU deberá identificar y delimitar cartográficamente estos hábitats, debiendo considerarlos en la ordenación municipal, de modo que mediante las actuaciones contenidas en el PGOU se procure mantener o aumentar la superficie ocupada por estos hábitats, mientras que las normas de ordenación del Suelo No Urbanizable otorgar una adecuada protección a las manchas de hábitats más significativas, especialmente de hábitat prioritario.

**b) Bosques autóctonos.** Masas de arbolado autóctono (robledal-bosque-mixto, hayedos, alisedas). En la elaboración del PGOU se delimitarán las masas de frondosas autóctonas y se estudiará la posibilidad de designar las mejores masas (p.e., hayedo acidófilo al sur del término municipal, robledales del entorno del caserío Aritzabal-Garakoa, etc.) dentro de la categoría de ordenación de suelo no urbanizable "*de especial protección*" siguiendo el criterio establecido en la Directrices de Ordenación del Territorio. Complementariamente, se podrán designar áreas de bosque degradado, zonas de matorral y suelos marginales en la categoría de "*mejora ambiental*" destinándose a la regeneración de masa forestales autóctonas.

**c) Murciélago grande de herradura** (*Rhinolophus ferrumequinum*). El municipio se encuentra incluido dentro del área de interés especial de este quiróptero, incluido en el Catálogo Vasco de Especies Amenazada dentro de la categoría de *Vulnerable*. El Estudio de ECIA deberá considerar la repercusión de las actuaciones previstas sobre esta especie.

**d) El Dominio Público Hidráulico** y su zona de servidumbre y zona de policía regulados por el texto refundido de la Ley de Aguas y su reglamento de desarrollo. El PGOU deberá atender a lo establecido en el PTS de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de la CAPV. Respecto a la calidad de las aguas, se otorgará un tratamiento adecuado a las aguas residuales del municipio, evitando que los nuevos desarrollos urbanos supongan un aumento

beharko da. Era berean, HAPNaren ordenantzan landa-etxebizitzen erdiguneetan eta nekazaritza eta abeltzaintzako jardueretan arazketa-sistema autonomoak derrigorrezkoak izango direla ezarri beharko da eta jarduera industrialetan hondakin-ura egoki araztea exijitu beharko da.

**e) Balio Agrologiko Handiko Lurrak.** HAPNan udaleko balio agrologiko handiko lurren, hau da, Nekazaritza eta Basozaintzako LAPan zehaztutako lurren ahalik eta azalera handiena babestea aurreikusi beharko da; horretarako, ustiategietan gordetzeko ahaleginak egin beharko dira eta lur horiek artifizial bihurtzea eta galtzea ekidin beharko da.

**f) Euskal Kultur Ondarean barneratutako Ondasunak.** HAPNko ebazpenek udalean dauden Euskal Kultur Ondareko ondasunei babes egokia eman beharko diete, Euskal Kultur Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen eta presuntzio arkeologikoko eremuak zehazteko erregimena ezartzen duen urriaren 8ko 234/1996 Dekretuaren arabera.

Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 76. artikuluan ezarritakoari jarraiki, hirigintza-araudiaren arabera babestu behar diren ondasun natural eta artifizialak inbentariatzeko eta identifikatzeko katalogoa eratzea gomendatzen da.

**<u>5.- IEEBaren AZTERLANAREN EDO INGURUMEN IRAUNKORTASUNEKO TXOSTENAREN EDUKIA ETA IRISMENA</u>**

IEEBaren Azterlanaren edukia ingurumen eraginaren ebaluazio bateraturako prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak ezartzen du. Halaber, IEEBaren Azterlanean plan eta programa jakin batzuek ingurumenean daukaten eragina ebaluatzeko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak I. eranskinean ingurumen iraunkortasuneko txostenentzat ezarritako informazioa jaso beharko da.

Hori dela-eta, Ormaiztegiko HAPNaren IEEBaren Azterlanean arau horiek eskatzen dituzten edukiak agertu beharko dira, eskema honi jarraiki:

**5.1.– Planaren helburu estrategiakoen eta helburu horiek lortzeko planteatutako aukeren azalpena**.

Atal horretan, Hiri Antolamendurako Plan Nagusi berrian planteatutako irizpide eta helburu zehatzak adierazi beharko dira; hau da, bai orokorrak, bai

de la carga contaminante vertida al DPH. Asimismo, la ordenanza del PGOU deberá establecer la obligatoriedad de instalar sistemas de depuración autónomos en los núcleos de viviendas rurales y en las actividades agropecuarias, así como la exigencia de tratamiento adecuado de las aguas residuales en actividades industriales.

**e) Suelos de Alto Valor Agrológico.** El PGOU contemplará la protección de la mayor cantidad de superficie de suelos de alto valor agrológico existentes en el municipio, tal y como se definen en el Avance del PTS Agroforestal, procurando su mantenimiento en explotación y evitando, la artificialización y pérdida de los mismos.

**f) Bienes integrantes del Patrimonio Cultural Vasco.** Las determinaciones del PGOU otorgarán una adecuada protección a los bienes del Patrimonio Cultural presentes en el municipio, conforme a la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco y el Decreto 234/1996, de 8 de octubre, por el que se establece el régimen para la determinación de las zonas de presunción arqueológica.

En virtud de lo establecido en el artículo 76 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, se recomienda la elaboración de un catálogo que inventaríe e identifique los bienes naturales o artificiales objeto de protección por la normativa urbanística.

**<u>5.- CONTENIDO y ALCANCE DEL ESTUDIO DE ECIA O INFORME DE SOSTENIBILIDAD AMBIENTAL</u>**

El contenido del Estudio de ECIA se establece en el anexo Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental. Asimismo, el EsECIA deberá contener la información que la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente establece para los informes de sostenibilidad ambiental en su anexo I.

Por tanto el EsECIA del PGOU de Ormaiztegi deberá aportar los contenidos exigidos por las citadas normas, desarrollando el esquema siguiente:

**5.1.– Descripción de los objetivos estratégicos del plan y de las alternativas consideradas para alcanzar dichos objetivos**.

En este punto, deberán exponerse los criterios y objetivos concretos que se han planteado en el nuevo Plan General de Ordenación Urbana, tanto

ingurumenekoak. Bestalde, erreferentzia-dokumentu honetako 3. eta 4. ataletan aipatutako iraunkortasun eta ingurumen babes eta hobekuntzarako irizpide eta helburu orokorrekin bat egiten duten aztertu beharko da.

Aukeren azalpenari eta azterketari eta eraginik izan dezakeen aukera bakoitzeko jardueraren identifikazioari dagokionez, IEEBaren Azterlanean edo iraunkortasun-txostenean, oraingoz, aurretiaz eta laburbilduta, txosten honetako 5.4 atalean zehaztutakoaren arabera egin behar den azterketa zehatzagoaren kontura, Plan Nagusia egitean aurreko pasartean aipatutako helburuak lortzeko aztertutako aukera guztiak (beste kudeaketa, kokapen, erabilera-esleipen edo esku hartze jarduera motak, edota helburu horien arabera planteatutako parte hartze eta eremu-banaketa ezberdinak) aurkeztu beharko dira.

**5.2.– Beste plan edo programekiko elkarrekintzen azterketa**

Eremuari edo HAPNan antolatutako alorrei eragiten dieten planak eta programak identifikatu beharko dira. HAPNaren eta plan eta programa horien arteko bateragarritasuna aztertu eta justifikatu beharko da. Hauek dira plangintzarekin bateragarriak izan beharko dutenak, gutxienez:

- EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA).
- Goierri Funtzio Arloko Lurralde Plan Partziala (Aurrerapena).
- EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Alorreko Plana.
- Merkataritza Ekipamenduentzako eta Jarduera Ekonomikoentzako Lur Publikoak sortzeko Lurralde Alorreko Plana.
- Etxebizitzen Sustapen Publikoko Lurralde Alorreko Plana.
- EAEko Zona Hezeen Lurralde Alorreko Plana.
- Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Alorreko Plana (behin betiko onartzeke).
- Kultur Ondareko Lurralde Alorreko Plana (Aurrerapena).
- EAEko Uholdeak Prebenitzeko Plan Integrala eta bere berrikusketa-dokumentuak.
- Euskadiko Baso Plangintza 1994-2030.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programa (2007-2013).
- Ormaiztegiko Tokiko 21 Agendaren Ekintza Plana (HAPNa ildo estrategikoetan ezarritako helburuekin bat etortzea eta bere ebazpenek PALean zehaztutako ekintzak lortzearen alde

los generales como los estrictamente ambientales, y analizar su adecuación a los criterios y objetivos generales de sostenibilidad y protección y mejora ambiental mencionados en los apartados 3 y 4 de este documento de referencia.

Por lo que se refiere a la descripción de las alternativas, su análisis, e identificación de las actuaciones de cada una de ellas que pueden dar lugar a impactos, el EsECIA o informe de sostenibilidad se circunscribirá en este momento a presentar preliminarmente y de forma resumida y sintética, a expensas del análisis más pormenorizado que debe de efectuarse de acuerdo con lo especificado en el apartado 5.4 de este informe, las distintas alternativas (como otros tipos de actuaciones de gestión, de localización, de asignación de usos y recursos y de intervención posibles, o su diferente contribución y distribución espacial en función de dichos objetivos) que se han contemplado durante la elaboración del Plan General para conseguir los objetivos comentados en el párrafo anterior.

**5.2.– Análisis de las interacciones con otros planes o programas**

Se identificarán planes y programas que afecten al ámbito o a los aspectos ordenados por el PGOU. Se analizará y se justificará la compatibilidad del PGOU con dichos planes y programas. El Planeamiento deberá ser compatible, al menos, con los siguientes:

- Directrices de Ordenación Territorial de la CAPV (DOT).
- Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Goierri (Avance).
- Plan Territorial Sectorial de Ordenación de las Márgenes de los Ríos y Arroyos de la CAPV.
- Plan Territorial Sectorial de creación Pública de Suelo para Equipamientos Comerciales y Actividades Económicas.
- Plan Territorial Sectorial de Suelo para la Promoción Pública de Viviendas.
- Plan Territorial Sectorial de Zonas Húmedas de la CAPV.
- Plan Territorial Sectorial Agroforestal (pendiente de su aprobación definitiva).
- Plan Territorial Sectorial del Patrimonio Cultural (Avance).
- Plan Integral de Prevención de las Inundaciones de la CAPV y los documentos de revisión del mismo.
- Plan Forestal Vasco 1994-2030.
- Programa de Desarrollo Rural Sostenible del País Vasco (2007-2013).
- Plan de Acción de la Agenda Local 21 de Ormaiztegi (adecuación del PGOU a los objetivos establecidos en las líneas

egitea) eta Goierriko Eskualdeko 21 Agenda.

- EAEko Korridore Ekologikoen Sarea.
- EAEko Paisaia Berezien eta Aparten Katalogoa.
- 2002-2020 Garapen Iraunkorraren Euskal Estrategia. 2007-2010 Ingurumeneko Esparru Programa.
- Klima Aldaketari Aurre egiteko Euskal Plana, 2008-2012
- Gipuzkoako Uraren Erabilera Iraunkorrerako Arauak.
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen LAP (Aurrerapena).
- Gipuzkoako Hondakin Azpiegituren LAP (Aurrerapena).
- Euskadiko Energia Estrategia, 2010.
- Goierri eskualdeko airearen kalitaterako Ekintza Plana (Ekintza zuzentzaile proposamena. 2007)

estratégicas y contribución de sus determinaciones al logro de las acciones definidas en el PAL) y Agenda 21 comarcal de Goierri.

- Red de Corredores Ecológicos de la CAPV.
- El Catálogo de Paisajes Singulares y Sobresalientes de la CAPV.
- Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo sostenible 2002-2020. Programa Marco Ambiental 2007-2010.
- Plan Vasco de Lucha Contra el Cambio Climático 2008-2012
- Directrices para la Utilización Sostenible del Agua de Gipuzkoa.
- PTS de Vías Ciclistas de Gipuzkoa (Avance).
- PTS de Infraestructuras de Residuos de Gipuzkoa (Avance).
- Estrategia Energética de Euskadi 2010.
- Plan de Acción de calidad del aire en la comarca del Goierri (Propuesta de acciones correctoras. 2007)

### 5.3.– Planari dagokion eremuaren ingurumen azterketa, diagnostikoa eta balorazioa

Atal horretan, Azterlanaren eremua Ormaiztegiko udalak osatuko du, batik bat; hala ere, gehiago zabaltzen ahalko da, baldin eta HAPNko helburuek eta jarduerek ingurumenean izan dezaketen eragina aztertzeko beharrezkotzat jotzen bada. Dena dela, azterketa-eremua zehazteko erabilitako irizpideak adierazi beharko dira.

Udalaren ingurumen-ezaugarriak, ingurumen-arazo nagusiak eta HAPNak zeharka edo zuzenean eragina izan dezakeen ingurumen-osagaien kontserbazio-egoera aipatu beharko dira; ingurumen-eraginaren ebaluazio bateraturako prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuko eranskineko 3. atalean ezarritako edukiak garatu beharko dira. Ingurumen-interes berezia daukaten baliabideak eta eremuak eta aldaketaren eremuan jardueretarako garrantzia daukaten ingurumen-arazoak kartografikoki jaso beharko dira, informazioa azkar eta erraz aurkitzeko moduan.

Alor hauek aztertu eta balioztatu beharko dira:

- Geologia, interes geologikoko balizko eremuak barne.
- Hidrologia. Batetik, Ormaiztegiko ur-masen ezaugarriak eta egoera aztertu beharko dira, baita, egonez gero, egoera ekologiko ona

### 5.3.– Análisis, diagnóstico y valoración ambiental del ámbito afectado por el Plan

El ámbito de Estudio, en este apartado, lo constituirá principalmente el municipio de Ormaiztegi, pero podrá extenderse más allá, si en algún aspecto se considera necesario para un mejor análisis de los posibles efectos de los objetivos y actuaciones del PGOU sobre el medio ambiente. En cualquier caso, se expresarán los criterios que han guiado la definición de dicho ámbito de estudio.

Se deberán describir las características ambientales del municipio, sus principales problemas ambientales y el estado de conservación de los distintos elementos del medio que puedan verse afectados de modo directo o indirecto por el PGOU, desarrollando los contenidos establecidos en el apartado 3 del anexo del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental. Los recursos y espacios de especial interés ambiental y los problemas ambientales existentes en el ámbito de la modificación que sean importantes para las actuaciones del mismo deberán recogerse cartográficamente, con objeto de permitir un acceso rápido y sencillo a dicha información.

Deberán analizarse y valorase al menos los aspectos siguientes:

- Geología, incluidas posibles áreas de interés geológico.
- Hidrología. Por una parte se estudiarán las características y el estado de las masas de aguas de Ormaiztegi y los factores que impidan

lortzea eragozten edo zailtzen duten faktoreak ere. Bestalde, udalerrian dauden ur-hartuneak inbentariatu beharko dira, batez ere giza kontsumorako balio dutenak, eta 2000/60/CE Esparru Arauari jarraiki babestuta egon daitezkeen eremuak zehaztu beharko dira.

o dificulten, en su caso, la consecución de un buen estado ecológico de las mismas. Asimismo, se inventariarán las captaciones de agua presentes en el término municipal, especialmente las destinadas a consumo humano y se identificarán posibles zonas protegidas en virtud de la Directiva Marco 2000/60/CE.

- Landaredia. Udalerriko landare-formazioak, komunitate-interesa daukaten habitatak eta, Europako araudiak babestuta egon gabe, kontserbatzeko interesa daukatenak (hariztiak/oihan mistoak) deskribatu beharko dira. Formazio horien egoerari buruzko informazioa eman beharko da eta masa onenak zehaztu beharko dira.

- Vegetación. Se describirán las formaciones vegetales que se distribuyen por el término municipal, los hábitats de interés comunitario y los que sin estar protegidas por la normativa europea presenta interés para su conservación (robledales-bosques mixtos). Se aportará información sobre el estado de estas formaciones y se identificarán las mejores masas.

- Natur interesa daukaten eremuak. Udalerrian Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko 16/1994 Legearen araberako Natur Eremu Babesturik ez Komunitate Intereseko Lekurik egon ez arren, diagnostikoan udalerrian natur ikuspegitik balio gehien daukaten osagaiak eta eremuak zehaztu beharko dira, behar duten babesa izan dezaten, lur ez urbanizagarri antolamendu-kategoria esleituz edo hirigintza-arauetan erabilerak eta jarduerak egoki arautuz. Era berean, tokiko eta eskualdeko elkargarritasunerako interesgarriak izan daitezkeen korridore ekologikoak zehazten ahalko dira, udalerria EAE osorako diseinatutako saretik kanpo egon arren.

- Espacios de interés naturalístico. A pesar de que el municipio no cuenta con Espacios Naturales Protegidos en base a la Ley 16/1994, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, ni con Lugares de Interés Comunitario, el diagnóstico deberá identificar los elementos y espacios del término municipal de mayor valor desde un punto de vista naturalístico, a fin de que reciban una adecuada protección mediante la asignación de categorías de ordenación del suelo no urbanizable o mediante la adecuada regulación de usos y actividades en las normas urbanísticas. Asimismo, se podrán definir corredores ecológicos que puedan ser de interés para la conectividad local y comarcal, aún situándose el municipio fuera de la red diseñada para la totalidad de la CAPV.

- Fauna. Ormaiztegiko udalerrian egon daitezkeen intereseko edo/eta legediak –Habitaten Zuzentarauak, Oihaneko eta Itsasoko Fauna eta Flora Espezieen Euskal Katalogoak, etab- babestutako fauna-espezieak aurkeztu beharko dira. Udalerriko zona jakin batzuetan egonez gero, puntu edo lauki horiek marraztu beharko dira. Era berean, faunarentzat interesgarriak diren eremu nagusiak zehaztu beharko dira, eta arreta berezia eman beharko zaio ferra-saguzarrari (*Rhinolophus ferrumequinum*), udalerria kiroptero horrentzat interes berezia daukan eremuan baitago.

